

**2016KO MAIATZAREN 17AN SASIETA MANKOMUNITATEKO BATZORDE  
ERREKTOREAK EGINDAKO BILERA**

**LEKUA:** Beasaingo Udalerria

**ARETOA:** Batzar- Aretoa

**EGUNA:** Hamazazpia

**HILABETEA:** Maiatza

**URTEA:** Bi mila eta hamasei.

**HASIERAKO ORDUA:** Arratsaldeko bostak eta erdi.

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena

**LEHENDAKARIA:** Aitor Aldasoro Iturbe, Beasaingo ordezkaria

**BILDUAK:** Mikel Arizkorreta, Altzagako ordezkaria  
Luis Garmendia Sagastume, Aramako ordezkaria  
Asier Rodriguez Etxeberria, Ataungo ordezkaria  
Edorta Diaz del Rio, Beasaingo ordezkaria  
Arantxa Bidegain Ormazabal, Gabiriako ordezkaria  
Ane Ormazabal Balerdi, Gaintzako ordezkaria  
Iloritz Imaz Baztarrika, Idiazabalgo ordezkaria  
Felix Urkola Iriarte, Lazkaoko ordezkaria  
Iñaki Estensoro Sarasola, Lazkaoko ordezkaria  
Koldobike Olabide Huelga, Legazpiko ordezkaria  
Jokin Garmendia Asurabarrena, Olaberriko ordezkaria  
Igor Eguren Izagirre, Ordiziako ordezkaria  
Miren Alazne Sukia Galparsoro, Ordiziako ordezkaria  
Olaia Izagirre Cruz, Ormaiztegiko Udala  
Eñaut Telleria Urkia, Segurako ordezkaria  
Igor Zubillaga Aguado, Urretxuko ordezkaria  
Itziar Agirre Berriotxoa, Urretxuko ordezkaria  
Jose Antonio Etxabe Nazabal, Zaldibiko ordezkaria  
Amaia Junquera Landeta, Zeraingo ordezkaria  
Mikel Serrano Aperribay, Zumarragako ordezkaria

**ETORRI EZ DIRENAK:** Garikoitz Aiesta Etxaniz, Ezkio-Itsasoko ordezkaria.  
Asier Garro Sodupe, Itsasondoko ordezkaria.  
Oscar Valbuena Pascual, Legazpiko ordezkaria.

Mariano Garmendia, Legorretako ordezkaria.  
Iñaki Ugalde Alustiza, Mutiloako ordezkaria.  
Joseba Izagirre Arocena, Zegamako ordezkaria.  
Ricardo Lozano Landart, Zumarragako ordezkaria

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran ere parte hartu dute, Lurdes Alegria Lasa Kontuhartzaileak, Iñaki Erauskin Urretabizkaia Zerbitzuburuak eta Enrike Enparantza teknikariak.

**1.- AURREKO AKTA.** 2016ko urtarrilaren 18ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zer esanik ez dagoelako.

**2.- ORDIZIAKO UDALAREN ESKAERA.** Ordiziako udalak edukiontzi kolektiboan bilketa sistema ezartzeko eskaeraren aurrean, Sasieta Mankomunitateko Batzorde Exekutiboak, 2016-04-20an egindako bileran hartutako erabakia onesteko proposamena.

Ezagutzera eman da, 2016-03-16an Ordiziako Udalbatza Osoak hartutako erabakia, hondakinak biltzeko sistemaren inguruko herri-galdeketak (2016-03-13), emandako emaitzaren arabera (edukiontzi kolektiboak: 2.325 boto eta sistema mistoak: 1.145 boto), hau da: **“Sasieta Mankomunitateari eskatzea ahalik eta azkarren ezartzeko edukiontzi kolektiboan sistema etxeko hondakinak biltzeko.”**

Sasieta Mankomunitateko Batzorde Exekutiboak, 2016ko apirilaren 20an ondorengo erabaki proposamena egiten du:

**“Lehenik.** *Ordizian edukiontzi kolektiboan sistema ezartzeko eskaera onartzea.*

**Bigarren.** *Edukiontzi kolektiboak jartzeko kostua Ordiziako Udalak finantzatzea, kontutan izanda, berriro edukiontzi kolektiboak jartzeak 133.721,56 €-ren kostua izan dezakeela eta bilketa 2013/07/12an “atez ateko” sistema martxan jarri zenean mankomunitatearentzat 222.085,70 € kostua izan zuela.*

**Hirugarren.** *Ordiziako Udalak Udalak kostu hori onartu bezain pronto, zabor bilketa zerbitzua ematen duen UTE GOIERRI GARBIArekin kontratua aldatzeko nahiz edukiontziak erosteko lehiaketa espedienteak martxan jartzea.”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Igor Eguren, Ordiziako ordezkariak berretsi egiten duela Batzorde Exekutiboaren proposamena, baina kostuen banaketa dela eta abstenitu egingo dela dio.

Miren Alazne Sukia, Ordiziako beste ordezkariak galdetu du orain arte nola egin den kostuen banaketa.

Lehendakariak ihardetsi du esanez Legazpin eta Lazkaon zegoen materiala aprobetxatu egin dela eta Ordiziak ere ez duela edukiontzi marroirik erosi beharrik

izango, baina sistema-aldaketak aipatu duen kostua izango duela dio eta ezin daitekeela ibili lau urtean behin aldaketak egiten. Sistema-aldaketa eskaerarekin batera, aldaketak suposatzen duen kostua ere aipatu egin beharko litzateke.

Segurako ordezkariaren ustetan irizpide batzuk ezarri beharko lirateke jakiteko zer den hobekuntza eta zer aldaketa.

Lehendakari jaunak: edukiontzia berdeak dauden tokian grisak jartzea eta zerraiala aldatzea, hobekuntzak izango lirateke. Aldiz, Sasietari kostua suposatzen dion sistema aldaketa, aldaketa izango litzateke.

Iñaki Erauskin, zerbitzu buruak: zaborra biltzeko lau sistema daude:

- 1.- Edukiontzien bidez.
- 2.- Atez-ate.
- 3.- Mistoa.
- 4.- Birziklagunea.

Sistemaren inplantazioa udalaren kontura izango litzateke.

Segurako ordezkariak: ez nago aurka, baina sistema aldatzearen ondorioz, bilketa tasa igotzen bada hobekuntza dela kontsideratu daiteke?

Lehendakari jaunak: hitz egin dezakegu, baina momentuz esku artean duguna erabaki behar dugu. Orain arte ez dugu jakin sistema bakoitzaren kostua zein izan den. Lehengo legealdian denon artean banatu da kostua, baina hemendik aurrera aldaketarekin batera kostua ere zein den aipatu egin beharko da.

Lehengo legealdi arte, erabakiak aho batez hartzen diren eta gauza da legealdi gehienetan HBk eta Eak kudeatu dutela. Azkeneko lau urteetan eman den haustura ez da inoiz eman.

Idiazabalgo ordezkariak: "Orain arte kostuaz ez bagara enteratu izan da, Sasietak dirua zuelako.

Sistema aldaketa eta horrek suposatzen duen kostuarekin eztabaida sortu da eta gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 12  
Aurkako botoak: 0  
Abstentzioak: 9

Horren ondorioz, gehiengo soilarekin ondorengo erabakia hartu da:

**Lehenik**. *Ordizian edukiontzi kolektiboan sistema ezartzeko eskaera onartzea.*

**Bigarren**. *Edukiontzi kolektiboak jartzeko kostua Ordiziako Udalak finantzatzea, kontutan izanda, berriro edukiontzi kolektiboak jartzeak 133.721,56 €-ren kostua izan dezakeela eta bilketa 2013/07/12an "atez ateko" sistema martxan jarri zenean mankomunitatearentzat 222.085,70 €ko kostua izan zuela.*

**Hirugarren**. Ordiziako Udalak Udalak kostu hori onartu bezain pronto, zabor bilketa zerbitzua ematen duen UTE GOIERRI GARBIArekin kontratua aldatzeko nahiz edukiontziak erosteko lehiaketa espedienteak martxan jartzea.”

### **3.- GIPUZKOAKO UREN KONTSORTZIOAREN ETA GIPUZKOAKO URAK, S.A.REKIN LANKIDETZA-HITZARMENA.**

Sasieta zabortegiko lixibiatuen arazketa egin eta Gaikaoko araztegiaren aldaketa finantzatzeko, Sasieta Mankomunitatearen eta Gipuzkoako Uren Kontsortzioaren eta Gipuzkoako Urak, S.A.ren arteko lankidetzaz hitzarmena onesteko proposamena.

Aipatutako lankidetzaz hitzarmena ezagutzera eman eta bozketa egin ondoren, jarraian transkribatzen den hitzarmena onartu da:

#### **“BILDUTA**

Alde batetik, **CONSORCIO DE AGUAS DE GIPUZKOA-GIPUZKOAKO URAK SA**, IFZ G20423992 eta helbidea Donostian, Portuetxe bidea 16, 1. solairuan duena, eta bere izenean eta ordezkartzan **Olatz Peon Ormazabal andrea**, Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren lehendakari eta Gipuzkoako Urak SAren Administrazio Kontseiluaren lehendakari gisa, kargu horretarako 2015eko azaroaren 3an izendatua. Gipuzkoako Ur Kontsortzioko estatutuetan jasotako eskumenen ondorioz jarduten du.

Bestetik, **MANCOMUNIDAD SASIETA-SASIETA MANKOMUNITATEA**, IFZ Q2000539C eta helbidea Beasainen, Iturraldetikiko Industrialdea 3n duena, eta bere izenean eta ordezkartzan **Aitor Aldasoro Iturbe jauna**, Sasieta Mankomunitatearen lehendakari gisa, kargu horretarako 2015eko irailaren 8an izendatua. Mankomunitatearen Zuzendaritza Batzordeak 2016ko maiatzaren 17an hartutako akordioaren ondorioz jarduten du.

#### **PARTE HARTZEN DUTE**

Biek beren karguen berezko funtzioen jardun osoan, elkarri hitzarmen hau sinatzeko gaitasun osoa aitortuz, eta horretarako,

#### **ADIERAZTEN DUTE**

- I. Consorcio de Aguas de Gipuzkoa-Gipuzkoako Urak SA Gaikaoko (Legorreta) HUAren erakunde arduraduna dela. HUA horrek orain arte Sasieta zabortegiko lixibiatuak hartu ditu, horregatik Mankomunitateari inolako kosturik aplikatu gabe, 2002ko martxoaren 11ko hitzarmen bat zegoelako, eta horren bidez Consorcio de Aguas de Gipuzkoa-Gipuzkoako Urak SAk Mankomunitateak kudeatutako Sasieta zabortegiko lixibiatuak jasotzen zituen eta, aldi berean, Consorcio de Aguas de Gipuzkoa-Gipuzkoako Urak SAk Mankomunitateak kudeatutako araztegi batzuetan sortutako lokatzak biltzen zituen, aldean artean inolako kontraprestazio ekonomikorik gabe.

2014ko urrian, Sasieta Mankomunitateak, araztegi-tako lokatzek zaborte-gian sortzen zizkion arazoak zirela bide, Consorcio de Aguas de Gipuzkoa-Gipuzkoako Urak SAri eskatu zion zaborte-gian isurtzen diren lohiak beste leku batera eramateko. Hortaz, eraginik gabe geratu zen 2002ko martxoaren 11n sinatutako hitzarmena. Une horretatik aurrera, Consorcio de Aguas de Gipuzkoa-Gipuzkoako Urak SAk utzi egin dio lohiak Sasieta-tako zaborte-gian isurtze-ari, eta zenbateko bat kobratzen dio Mankomunitate-ari lixibiatua arazte-gatik, ez datorrena bat horien arazketaren kostuarekin, baizik Gaikaoko HUAri sortzen dion gainkostuarekin, Sasieta-n sortutako lixibiatua arazte-gatik.

- II. Gaikaoko HUAk gaur egun tratamendu bat duela arbastatzeko, dekantatzeko eta tratamendu biologikoa egiteko, likore mistoko erreaktore biologiko batean materia organikoa ezabatu, nitrifikatu eta desnitrifikatu egiten duena, eta ibilgu publikora isurketak egiteko haren helburuak hauek dira:
  - a. Oxigeno-eskaera biokimikoa 5 egunera (OEB<sub>5</sub>): 25 mg O<sub>2</sub>/l-tik behera
  - b. Oxigeno-eskaera kimikoa: 125 mg O<sub>2</sub>/l-tik behera
  - c. Nitrogeno amoniakala: 2 mg N-NH<sub>3</sub>/l-tik behera
  - d. Guztizko nitrogenoa: 15 mg guztizko-N/l-tik behera
  - e. pHa 5,5-9,5 artean
  - f. Detergenteak: 2 mg /l-tik behera
  - g. Guztizko fosforoa: 1 mg /l-tik behera
- III. Gaikaoko HUA hiriko hondakin-urak eta hirikoei asimilagarriak arazteko diseinatuta dagoela. Ildo horretan, eta Sasieta-tako zaborte-giko lixibiatu-eta-ko elementu eta/edo konposatu jakin batzuen ezaugarriak eta kontzentrazioak ikusirik, zehazki guztizko nitrogeno-ari eta oxigeno-eskaera kimiko (OEK) eta oxigeno-eskaera biokimiko (OEB) gisa adierazitako karga organiko-ari eta horiei lotutako parametroei dagokienez, Gaikaoko HUAk ez du nahikoa ahalmen Kantauriko Ur Konfederazioak emandako isurketa-baimenean eskatutako isurketak arazteko eta horien parametroak betetzeko.
- IV. Ibilguan isurketak egiteko baimena betetzeko eta Sasieta-tako zaborte-giko lixibiatuak tratatzeko aukera bakarra Gaikaoko HUA aldatzea eta handitzea izango litzatekeela, guztizko nitrogeno-karga eta lixibiatuen karga organikoa tratatzeko gai izan dadin. Horretarako, Consorcio de Aguas de Gipuzkoa-Gipuzkoako Urak SAk oinarritzko proposamen bat idatzi du, eraldaketa hori o-hantze mugikor-reko teknologia (MBBR<sup>TM</sup>) erabiliz egiteko. Teknologia horren bidez, obra zibila minimizatu daiteke arazte-gian; izan ere, obra zibileko erreaktoreak erabilia, haren ahalmena handitu liteke, mikroorganismoak garatzeko azalera handituko duten betegarri plastikoak erabilia. Handitze horrek, gainera, lehendik dauden ekipamendu batzuk ordezte-ara berekin.
- V. Sasieta Mankomunitateak (Beasain), izen bereko hiri-hondakin solidoen zaborte-giaren kudeaketa-z arduratzen denak, Mankomunitate-aren Zuzendaritza

Batzordearen 2015eko azaroaren 23ko akordioaren bidez, Sasieta zabortegia behin betiko ixtea erabaki duela.

- VI. Sasieta Mankomunitateak, 2015eko maiatzaren 15eko Ingurumeneko Baimen Bateratuan jaso den bezala (maiatzaren 15eko ebazpena, Ingurumen sailburuordearena, Sasieta Mankomunitateari Beasaineko udalerrian, Gipuzkoa, hondakin ez-arriskutsuen jarduera aldatzeko, aldi baterako uzteko eta emandako ingurumeneko baimen bateratua eraginkor egiteko dena), eta zehazki D.3.5.4 atalean, Gaikaoko (Legorreta) HUAren kolektorera isuriko ditu lixibiatuak, eta hura ohande mugikorrek teknologiaren bidez birmoldatzea Sasieta Mankomunitateak finantzatuko du, Sasieta Mankomunitatearen jabetzako Sasieta zabortegian sortutako lixibiatuak tratatzeko.
- VII. Sasieta Mankomunitateak, Gaikaoko HUA handitzearen ondorioz sortutako kostuak bere gain hartzeko prestasuna adierazi duela, araztegiak Sasieta zabortegiko lixibiatuak tratatzeko eta horrela administrazio eskudunak ibilgu publikora isurketak egiteko ezarritako helburuak betetzeko, eta gainera 2016ko aurrekontuan birmoldatze hori egiteko dagokion partida jarri duela dagoeneko.
- VIII. Mankomunitateak, halaber, Sasieta zabortegiko tratamendua Gaikaoko HUAren egitearen ondorioz sortutako ustiapen-kostuak bere gain hartzeko prestasuna adierazi duela, hitzarmen hau Consorcio de Aguas de Gipuzkoa-Gipuzkoako Urak SArekin aurrez adostu eta sinatuta.

Horregatik, parte-hartzaileek lankidetzaren hitzarmen hau sinatzen dute eta ezarri dituzte jarraian adierazitako

### KLAUSULAK

**Lehenengoa.** Hitzarmen honen xedea da Consorcio de Aguas de Gipuzkoa-Gipuzkoako Urak SA eta Sasieta Mankomunitatearen arteko lankidetzaren baldintzak arautzea, Gaikaoko HUAren aldaketa finantzatzeko eta gauzatzeko, aukera izan dadin Sasieta zabortegiko lixibiatua arazteko eta arazketa horren etorkizuneko baldintzak ezartzeko.

**Bigarrena.** Consorcio de Aguas de Gipuzkoa-Gipuzkoako Urak SA arduratuko da proiektua idazteaz, obrak kontratatzeaz eta horien zuzendaritza fakultatiboaz. Sasieta Mankomunitateak, halaber, konpromisoa hartzen du proiektuaren idazketa eta Gaikaoko HUA aldatzeko obraren gauzatea finantzatzeko, Consorcio de Aguas de Gipuzkoa-Gipuzkoako Urak SAk idatzitako oinarriko proposamenaren ezarritako baldintzetan. Kontratako kalkulaturako gauzate-aurrekontuak hauek dira:

- Proiektua idaztea eta obra gauzatea: 1.435.982 € (BEZ kanpo)
- Obraren zuzendaritza fakultatiboa: Consorcio de Aguas de Gipuzkoa-Gipuzkoako Urak SAren bitartekoen bidez.

Bere betebeharrei erantzuteko, finantzaketa bat aurreikusi da Sasieta Mankomunitatearen uneko urteko aurrekontuan, 1 0000.721.162.31.01 2016 partidan.

Proiektuaren faseen gutxi gorabeherako kronograma jarraian xehatu da:

- Proiektua idaztea: 2 hil
- Obren lizitazioa eta esleipena: 4 hil
- Obrak gauzatzea: 8 hil

Esleipen-prezioan ondorio ekonomikoa duten kontratu-gorabeherak, hala nola gehiegizko likidazioak, prezioak berrikustea, zerga-aldaketak, obra osagarriak, etab., Sasieta Mankomunitateak hartuko ditu bere gain, Jarraipen Batzordeak aurrez onartuta.

**Hirugarrena.** Ordainketa-modalitatea hileko ziurtagirien bidez egingo da, obrak aurrera egin eta proiektua gauzatzen den heinean.

**Laugarrena.** Gaikaoko HUAren birmoldatzea Sasieta Mankomunitatearen eta Consorcio de Aguas de Gipuzkoa-Gipuzkoako Urak SAren arteko adostasunez egingo da.

**Bosgarrena.** Gipuzkoako Ur Kontsorzioak bere bitartekoen bidez egingo du Gaikaoko HUA egokitzeko obren zuzendaritza fakultatiboa.

**Seigarrena.** Consorcio de Aguas de Gipuzkoa-Gipuzkoako Urak SAK baimena ematen du Sasietako zabortegean sortutako lixibiatua Beasaineko Gaikaoko HUA n isurtzeko, hitzarmen honen zazpigarren klausulan zehazten diren baldintzetan, baldin eta Mankomunitateak konpromisoa hartzen badu HUA hori handitzeko obren ondorioz sortutako kostua bere gain hartzeko, Consorcio de Aguas de Gipuzkoa-Gipuzkoako Urak SAK idatzitako oinarritzko proposamenari jarraikiz, eta lixibiatuek proiektu horretan aurreikusitako agertokietan dituzten emari, karga kutsatzaile eta eraginen arabera.

**Zazpigarrena.** Hitzarmenak iraupen mugagabea izango du, hots, zabortegeak lixibiatua sortzeari utzi arte, hitzarmen honen seigarren klausulan ezarritako balioak betetzen badira (karga-murrizketaren eta zabortegearen emariaren arabera berrikusiko dira balio horiek), eta HUAk egungo ibilgu publikora isurtzeko helburuak bete baditzake.

HUAk isurtzeko muga horiek ezin bete baditu eta fede emateko moduan frogatzen bada ez-betetzea zabortegeko lixibiatuei egoztekoa dela, hitzarmena berrikusi egin beharko da. Halaber, etorkizunean HUAri ibilgu publikora isurketak egiteko administrazio eskudunak ezarritako mugak aldatzen badira, hitzarmena berrikusi egin daiteke.

Ez-betetzeek ingurune hartzailean arrisku larriak sor ditzaketen kasuan, Consorcio de Aguas de Gipuzkoa-Gipuzkoako Urak SAK Mankomunitateari eskatuko dio lixibiatuak Consorcio de Aguas de Gipuzkoa-Gipuzkoako Urak SAren kolektoretara eta HUAra isurtzeari uzteko.

**Zortzigarrena.** Sasieta Mankomunitateak edo, hala badagokio, hura ordezkaturako duen erakundeak kudeatutako Sasieta zabortegiko lixibiatuek, Consorcio de Aguas de Gipuzkoa-Gipuzkoako Urak SAREN kolektoreira isuriko direnek bete behar dituzten baldintzak hauek izango dira:

### **8.1. Balio maximoei dagokionez:**

#### **8.1.1. Lixibiatuarentzat:**

- Emari maximoa: 110.000 m<sup>3</sup>/urte
- Oxigeno-eskaera kimikoa (OEK): 678 kg/egun
- Nitrogeno amoniakala (N-NH<sub>3</sub> gisa): gehienez 280 kg/egun
- Guztizko nitrogenoa: 380 kg/egun

Hala ere, ohartarazten da klausula honetan jasotako balioak gehienez onar daitezkeen balioei dagozkiena, eta horrek ez du esan nahi lixibiatuen karga kutsatzaile maximoak maximo horietara iritsiko direnik, edo emariak urtero maximo horretara iritsiko direnik, hori oso lotuta baitago plubiometriarekin.

#### **8.1.2. Lixibiatuarekin nahasi ondoren HUAN sartzeko urarentzat:**

- **Eroankortasuna:** gehienez 17.500 µS/cm-koa 20° C-tan, orain arte ez baita frogatu eroankortasun horrek inolako eraginik duenik HUAko tratamendu-prozesuetan. Hala ere, uneren batean ezarritako eroankortasun horretatik gorako balioak detektatzen badira eta balio horiek ezarritakoak baino handiagoak badira, onartu egingo dira, araztegiaren funtzionamenduan anomaliak detektatu ez badira. Halaber, eta eroankortasun-balio handiagoek tratamendu-prozesuan eragina badute eta lixibiatuei egoztekoak direla frogatzen bada, parametro horren mugak berrikusiko dira.
- **“Si” terminoa:** parametro hau, Gipuzkoako Ur Kontsurtzioak degradazioko bost egunen buruan oxigeno-eskaera kimiko (OEK) gisa definitua, araztegiara isurtzeko baimenak ezartzen duenez, ezin da izan 100 mg/l-tik gorakoa, orain arte ez dena gainditu lixibiatuen isurketarekin. Hala ere, uneren batean ezarritako “Si” horretatik gorako balioak detektatzen badira eta balio horiek 100 mg/l baino handiagoak badira, onartu egingo dira, araztegiaren funtzionamenduan anomaliak detektatzen ez badira. Halaber, eta “Si” balio handiagoek tratamendu-prozesuan eragina badute eta lixibiatuei egoztekoak direla frogatzen bada, parametro horren mugak berrikusiko dira.

### **8.2. Isurketa-parametroen neurketari dagokionez:**

Consorcio de Aguas de Gipuzkoa-Gipuzkoako Urak SAK gutxienez hilean behin hartuko ditu lixibiatuen laginak, eta ausazko egunetan.

Era berean, Sasieta Mankomunitateak bere laginak hartuko ditu.

Antzeko baldintza plubiometriko eta emarien analitikan adierazgarriak ez diren desadostasun zehatzak badaude, Consorcio de Aguas de Gipuzkoa-Gipuzkoako Urak SAREN analisiak izango dira nagusi.



Desadostasunak adierazgarriak eta jarraituak badira, bi aldeek metodo analitikoak berrikusiko dituzte eta, alderaketaren emaitzetan oinarrituta, aldatu egingo dira edo dagokion koefiziente zuzentzailea aplikatuko da.

**Bederatzigarrena.** Sasieta Mankomunitateak lixibiatuak Gaikaoko HUAra isurtzeagatik ordaindu behar duen prezioa Consorcio de Aguas de Gipuzkoa-Gipuzkoako Urak SAri zabortegiko lixibiatuen tratamenduak sortzen dion gainkostua izango da; hots, kontsumo elektrikoa, errektiboen kontsumoa, higadura azkartuak, lokatzaren lehortasuna galtzea eta hura garraiatzea, sortutako gehiegizko lokatza, langile-gastuen eta/edo gastu orokorren balizko gehikuntza, etab. Kontuan izan behar diren kontzeptu fakturagarriak hauek dira:

**a) Energiaren gainkostua:**

Betegarri plastikoa esekita edukitzeko behar den airea; errektore biologikoan sartu behar den betegarri plastikoaren arabera, 1.960 Nm<sup>3</sup>/h behar dira, aire horrek kostu elektrikoaren ekarpena egiteko. Kalkulatutako aurrekontua: 73.000 €/urte (2016. urteko €).

**b) Errektiboen dosifikazioa:**

Proiektuan zehaztuko da metanola edo beste errektibo bat (isoglukosa, biodiesel-etanola, etab.) gehitu behar den batez besteko kargetarako. Hala ere, benetako egoerak (OEK/nitrogeno erlazioak) adieraziko du, behar bezala justifikatuta, materia karbonotsu gehigarria dosifikatu behar den nitrogeno amoniakala murrizteko. Dosifikazio hori beharrezkoa dela frogatzen bada, horren erabileraren ondorioz sortutako kostua Sasieta Mankomunitateak hartuko du bere gain, horren faktura Consorcio de Aguas de Gipuzkoa-Gipuzkoako Urak SAK aurkeztuta.

**c) Gainerako kostuak:**

Lixibiatuaren tratamenduari lotutako gainerako kostuak, hala nola instalazioaren gainerakoaren energia, lokatzen tratamendua, ekipamenduen ordezkioak eta higadura, langile-gastuak, gastu orokorrak, 0,1 €/m<sup>3</sup>-an (2016ko €) finkatu dira. Urteko prezioen bilakaerari dagokionez, urteko PKIaren prezioaren gehikuntza ezartzen da, eta urtero urtarrilaren 1ean eguneratuko da (lehen eguneratzea 2017an).

Errektore biologikoetan sartu behar den plastikoaren agitazio-premiari lotutako aire-bolumenari dagokionez, 5 urtean behin berrikuspen bat ezartzen da. Aldi horretan, murrizketa adierazgarria aurreikusten da nitrogeno amoniakalean zein zabortegiko lixibiatuetako materia organikoan, eta beraz, airearen murrizketa adierazgarria aurreikusten da. Horrek berekin ekarriko du betegarri plastikoaren bolumena lixibiatuen kargen egoera berrira egokitu beharra.

**Hamargarrena.** Une jakin batean Sasieta Mankomunitateak kudeatutako Sasieta zabortegiko lixibiatuek Consorcio de Aguas de Gipuzkoa-Gipuzkoako Urak SAK kudeatutako Gaikaoko HUAren funtzionamendu zuzena aldatzen badute, hots,

*lixibiatuetan tratamendu-prozesu biologikoa eragozten duen substantziaren bat detektatzen bada, edo lixibiatuen ondorioz sortutako lokatzak hondakin arriskutsu bihurtzen badira, Consorcio de Aguas de Gipuzkoa-Gipuzkoako Urak SAK, sortutako egoera zaborteziari egoztekoa dela aurrez modu fede-emailean frogatuta, Sasieta zabortegiko lixibiatuen isurketa kolektore orokorrera mugatzeko aukera izango du eta, hala badagokio, egoera luzatzen bada, lixibiatuak kolektorera isurtzea aldi baterako eteteko.*

**Hamaikagarrena.** *Lixibiatu-emia kontrolatzeko, Sasieta Mankomunitateak Consorcio de Aguas de Gipuzkoa-Gipuzkoako Urak SAK kudeatutako Gaikaoko HUaren kolektorera isurtzen duen emariaren neurketa bat izango du. Zenbait faktorerengatik emari-neurgailua zerbitzuz kanpo badago, emariaren kalkulu bat egingo da aurreko aldiaren batez bestekoan oinarrituta, baina urtero, urtarrilean, aurreko emari errealean doikuntza bat egingo da, emari-neurgailuaren totalizatzailearen datuetan oinarrituta.*

**Hamabigarrena.** *Consorcio de Aguas de Gipuzkoa-Gipuzkoako Urak SAK hiru hilero egingo dio lixibiatuen isurketaren fakturazioa Sasieta Mankomunitateari, eta ordainketa-epea uztailaren 5eko 15/2010 Legeak ezarritakoa edo une bakoitzean legez indarrean dena izango da. Epea ez da inoiz izango 90 egunetik gorakoa faktura jaulkitzen denetik hasita.*

**Hamahirugarrena.** *Consorcio de Aguas de Gipuzkoa-Gipuzkoako Urak SAKen bi ordezkariak eta Sasieta Mankomunitatearen beste bik osatutako jarraipen batzorde bat eratuko da. Ordezkariek hitzarmen hau sinatzen duten bi aldeek izendatuko dituzte, eta funtzio hauek izango dituzte:*

- a) *Jarraipen Batzordea, aldi berean, Adituen Batzorde gisa eratuko da, obrak esleitzeko proposamen teknikoak baloratzeko.*
- b) *Obren gauzatze normalaren jarraipena egitea, elkarren arteko informazioa ahalbidetzeko irizpideak eta moduak zehaztuta eta hartutako konpromisoak behar bezala betetzea.*
- c) *Hitzarmenak planteatzen dituzkeen interpretazio- eta gauzatze-arazoak ebaztea.*
- d) *Kontratazio-organoari obra osagarriak gauzatzea proposatzea, beharrezkoak badira, eta, hala badagokio, finantzaketaren banaketa.*
- e) *Hitzarmenaren xede diren jarduketak betetzen direla bermatzeko behar diren neurrien berri ematea eta horiek proposatzea.*

*Batzordea jarduketan martxa egokiak behar duen guztietan bilduko da eta, nolana ere, edozein alde eskatzen duen guztietan.*

**Hamalaugarrena.** *Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta beronen interpretazioa eta garapena administrazio publikoen arteko hitzarmenei aplikatzeko den antolamendu juridiko\_eta administratiboak arautuko du.*

*Parte-hartzaile bakoitzak bere gain hartzen ditu lankidetzak hitzarmen honen ondorioz hartzen dituen konpromisoak datxezkien erantzukizunak.*

Hitzarmen hau interpretatzean eta betetzean sor daitezkeen auzigaiak Administrazioarekiko Auzien ordenari jakinaraziko zaizkio eta haren eskumena izango dira.

**Hamabosgarrena.** Hitzarmenak sinatzen denetik izango du eragina, obligazioa sortuko die aldeei eta lixibiatua desagertu arte edo hitzarmena suntsiarazi arte iraungo du.

Aldereren batek bere gain hartutako konpromisoak betetzen ez baditu, besteak ahalmena izango du horiek zorrotz betetzea exijitzeko, edo hitzarmena suntsiaraztea eskatzeko, beti idatziz eta justifikatuta.

**Hamaseigarrena.** Hitzarmen hau sinatzen den egunean, indarraldirik gabe geratuko da 2002ko martxoaren 11ko hitzarmena. Horren bidez Consorcio de Aguas de Gipuzkoa-Gipuzkoako Urak SAK Mankomunitateak kudeatutako Sasieta zabortegeko lixibiatuak jasotzen zituen eta, aldi berean, Consorcio de Aguas de Gipuzkoa-Gipuzkoako Urak SAK kudeatutako araztegi batzuetan sortutako lokatzak biltzen zituen Sasieta Mankomunitateak.”

**4.- KONTRATAZIOA.** Sasieta zabortegea zigilateko 2. faseari dagozkion obren exekuzioa kontratatzeko espedientea onartzeko proposamena.

Ezagutzera eman da lizitazio horren xehetasun ezaugarrienak, hau da:

“GEYSER HPC, S.A.U. enpresak 2016ko apirilaren 15ean idatzitako “Beasainen (Gipuzkoa) Sasieta hondakin ez-arriskutsuen zabortegearen berreskuratu eta ixteko 2a faseko proiektua” izeneko dokumentuan dagoen eraikuntza-proiektuaren barruko obrak jardunbide ireki bidez kontratatzeko espedientea onartzea, 816.652,89 €-ko kreditua erreserbatzea (BEZik gabe), aipatutako kontratua araupetzeko Klausula Administratiboen Plegua onartzea eta esleipena egiteko jardunbideari hasiera ematea.

1. **Helburua:** Sasieta zabortegea zigilatzeke 2a faseari dagozkion obren exekuzioa: Beasaingo hondakin ez-arriskutsuen Sasieta zabortegean, 15.960 m2 azalerako “2a fasea” deritzan zonalde baten gainazala, material geosintetikoak erabiliz iragazgaiztu eta zigilatzea. CPV-08 kodea: 45112330-7 “Lursaila berreskuratzeko lanak”.
2. **Kontratazio prozedura:** irekia publizitatearekin
3. **Izapidetza:** arrunta
4. **Lizitazioaren oinarriko aurrekontua:** 816.652,89 €, BEZik gabe.
5. **Exekuzio epea:** lau hilabete
6. **Prezioen berrikustea:** Ez
7. **Kaudimen ekonomiko eta finantzarioari buruzko frogagiriak:**
  - Banketxeke aitorpen agiria.

- 1.000.000 euroko erantzukizun zibilaren aseguruari buruzko frogagiria.

## **8. Kaudimen tekniko eta profesionalari buruzko frogagiriak:**

- Hondakin ez-arriskutsuen zaborteak iragazgaiztu eta zigilatzeko obren zerrenda. Horiek azkeneko hamar (10) urteetan eginak izango dira eta obra garrantzitsuenen kasuan gauzatze onari buruzko ziurtagiriekin bermatuko dira. Ziurtagirietan zenbatekoa, datak, obren gauzatze-tokia eta hartzaile publiko edo pribatuak azalduko dira. Egindako zerbitzuak organo eskudunak burututako ziurtagiriekin egiaztatuko dira edo hartzailea subjektu pribatua denean, horrek egindako ziurtagiriarekin. Sasieta mankomunitateak eskuratutako informazioa alderatzeko eskubidea gordetzen du, arloan organo eskudunak egindako ziurtagiriaren bitartez ziurtatu ez bada.

Azkeneko hamar urteetan egindako obrak izango dira gutxienez epearen erdia aldi horretan izan dutenak.

Eskatutako kaudimena gutxienez kontratuaren xede diren antzeko lan batekin (1), hau da, obraren antzeko azalera eta zenbatekoarekin hondakin ez-arriskutsuen zaborteak, zati batean edo bere osotasunean, material geosistetikoak erabiliz (partzialki edo osorik) iragazgaiztu eta zigilatzea, egiaztatzen ez duten enpresen eskaintzak baztertuko dira.

- UNE-EN ISO/IEC 17025 arauaren arabera organo eskudunak emandako indarrean dagoen egiaztapena, proiektuan jasotako material geosintetikoaren kontrolerako kalitate-saiakuntzak egingo dituzten kontratistak proposatutako laborategienak. Kasu guztietan egiaztagiriei dagozkien norainokoa erantsi beharko da.
- Obren exekuziorako atxikiko den PERTSONALA eta laguntza teknikoaren aitorpena. Ildo horri jarraiki, obrak gauzatzen esku hartuko duten langile teknikoaren zerrenda nominala sartuko da eta horri prestakuntza eta esperientzia profesionala egiaztatzen duen dokumentazioa erantsiko zaio.

Nolanahi ere, obran kontratistaren ordezkari bezala jardungo duen pertsona, obraren burua eta arduraduna izendatuko dira. Lehenengoari dagokionez, halabeharrez gauzatu behar den obrarekin bat datozen titulazioa eta esperientzia izango ditu.

Baldintza izango da talde teknikoaren osagai bakoitzak banan-banan lanean parte hartzeko konpromisoa hartzea. Aurrekoaren harira, obrak gauzatzen ari diren bitartean egiazko arduraldi-maila (osoa, partziala edo aholkularitza-lanari dagokiona) justifikatuko ditu. Lan desberdinetan emandako orduen justifikazioa aurkeztu beharko da bai presentziazkoa obra gauzatze da eremuan bai bulegoan.

- Obren exekuziorako atxikiko den MAKINERIA, MATERIALA ETA BALIABIDE TEKNIKOAK, egiaz dituela justifikatzen duen dokumentazioa aurkeztuz, argi eta garbi zehaztuz baliabideak norberarenak diren ala azpikontratutakoak diren, eta azken kasuan azpikontratazioaren gehieneko portzentaia kontsideratuz.

- Material geosintetikoaren instalazioa egingo duen enpresaren BALIABIDE MATERIALEN ETA GIZA BALIABIDEEN aitortzea (karatulan ezarri bezala, lan hauek nahitanaihez azpikontratatzeko dagoen obligazioarekin lotuta).

#### 9. Kontratisten sailkapena:

A Taldea, A-1 eta A-2 Azpitaldea, d Kategoría  
C Taldea, C-7 Azpitaldea, d Kategoría  
E Taldea, E-1 Azpitaldea, d Kategoría

#### 10. Esleipen irizpideak:

- a) Automatikoki antzematen diren irizpideak:
  - Proposamen ekonomikoa: 0-50 puntu
- b) Balio-judizio baten arabeko irizpideak:
  - Obraren txosten teknikoa: 0-10 puntu
  - Zabortegiaren jarduerarekin obren koordinazio-plana: 0-15 puntu
  - Egin beharreko lanen programazio xehatua: 0-10 puntu
  - Iragazgaizpen-paketerako proposatutako materialak eta hauek obran jarri eta instalatzea: 0-15 puntu

Hurrengo fasera bakarrik formula matematikoa aplikatuz balioztatzen ez diren esleipen-irizpideetarako zehaztu diren puntu guztietatik (50 puntu) gutxienez 30 puntu gainditzen dituzten proposamen teknikoak pasako dira.

**11. Espedientea:** Klausula Administrazioen Pleguak eta gaineratiko dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Sasieta Mankomunitatearen bulegoetan, Beasaingo Iturralde-txikiko industrialdean, 3. zenbakian, Salvatore auzoan, eta ondorengo web orrian: [www.sasieta.eus](http://www.sasieta.eus)

**12. Behin betiko bermea:** esleipen zenbatekoaren %10a, BEZ sartu gabe.

**13. Proposamen eredia:** Berariazko Klausula Administrazioen Pleguan azaltzen dena.

**14. Aurkezteko epea, lekua eta ordua:** Proposamenak, Sasieta Mankomunitateko Sarrera Erregistroan, 9.00-14.00 bitartean aurkeztu beharko dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean lizitazio iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik hasi eta , hogeita sei (26) egun naturalen epean. Azken eguna larunbata edo jaieguna balitz, epea hurrengo lehen egun baliodunera arte luzatuko da.

**15. “B” kartazala (BALIO JUDIZIO BATEN ARABERAKO BALIOESPEN IRIZPIDEAK) irekitzeko lekua, eguna eta ordua:** publikoki irekiko da SPKLTBak 146.1. artikuluan aipatzen duen administrazio-dokumentazioa ireki den unetik gehienez zazpi egun naturaleko epean.

**16. “C” kartazala (DIRU-PROPOSAMENA ETA AUTOMATIKOKI BALIOESTEKO IRIZPIDEAK) irekitzeko lekua, eguna eta ordua:** “B” kartazalaren irekiera-ekitaldian eta kontratzailearen profilean adieraziko da.

**17. Aurkeztu beharreko agiriak:** Lizitatuzaileek Berariazko Klausula Administrazioen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.”

Informazio gisa Lehendakari jaunak esan du, Ministeritzatik 236.000,00 €ko dirulaguntza iritsiko dela, obra horiek burutzeko.

Bozketa eginda, aho batez onartu da aipatutako obrak lizitzeko baldintza plegu administratiboa nahiz proiektua onartzea eta deialdi publikoa egitea, GAOan iragarkia argitaratuz.

**5.- INFORMAZIOA.** Sasieta zabortegean biltegirotutako araztegi-tako lohiak egonkortzeko labe garaiko zepa siderurgikoak erabili eta balorizatzeko Arcelormittal Gipuzkoa S.L.U. eta Sasieta Mankomunitatearen artean sinatutako lankidetzahitzarmenari buruzko informazioa.

Aipatutako hitzarmena transkribatzen da, ezagutu ahal izateko:

*“CONVENIO DE COLABORACIÓN PÚBLICO-PRIVADA ENTRE ARCELORMITTAL GIPUZKOA S.L.U., Y LA MANCOMUNIDAD SASIETA, PARA LA VALORIZACION DE ESCORIAS SIDERURGICAS DE ALTO HORNO Y SU UTILIZACIÓN PARA LA ESTABILIZACION DE LODOS DE E.D.A.R. ALMACENADOS EN EL VERTEDERO SASIETA DE BEASAIN.*

*En Olaberria, a 19 de abril de 2016*

#### *REUNIDOS*

*De una parte, JAVIER SÁNCHEZ PÉREZ y PASCAL GENEST en calidad de Representantes Legales, CARLOS SOLETO ORDAZ, en calidad de CPO Largos España, INMA CANO, en calidad de CPO de AMG y ALVARO PLAZA REINO, en calidad de Responsable de Medio Ambiente, en representación de ARCELORMITTAL GIPUZKOA S.L.U., en adelante «AMG», sociedad inscrita en el Registro Mercantil de Gipuzkoa, con C.I.F. B20435301 y domicilio en Ctra. Nacional I, km 417 20.212 Olaberria (Gipuzkoa).*

*De la otra, AITOR ALDASORO ITURBE, en calidad de Presidente, en representación de la MANCOMUNIDAD SASIETA, en adelante «MS», con C.I.F. Q2000539C y domicilio en Iturralde-txikiko industrialdea, 3-2ª planta de Beasain (Gipuzkoa), designado para dicho cargo con fecha 8 de septiembre de 2015.*

#### *INTERVIENEN*

*Todos ellos en el ejercicio de las funciones propias de sus cargos, reconociéndose mutua y plena capacidad para el otorgamiento del presente Convenio, y al efecto,*

#### *EXPONEN*

- I. Que ArcelorMittal Gipuzkoa S.L.U. es una empresa perteneciente al Grupo ArcelorMittal, cuya sociedad matriz es ArcelorMittal S.A., domiciliada en Luxemburgo, y que tiene su principal actividad dedicada al sector siderúrgico.*

- II. Que como consecuencia de su proceso siderúrgico, ArcelorMittal Gipuzkoa S.L.U. planta de Olaberria, produce residuos, tales como escoria negra y escoria blanca (los "Residuos") susceptibles de ser valorizados.*
- III. Que la Mancomunidad Sasieta es una entidad pública especializada en la gestión de residuos establecida en Beasain, que dispone de todos los permisos y autorizaciones legales necesarios para realizar dichas funciones. Asimismo cuenta con las instalaciones necesarias para realizar sus labores de gestión y más concretamente, cuenta con un Vertedero de residuos no peligrosos en el término municipal de Beasain (el «Vertedero»), legalmente autorizado en virtud de la Resolución de 15 de mayo de 2015 del Viceconsejero de Medio Ambiente del Gobierno Vasco e identificado con el Número de Identificación Medio Ambiental (NIMA) 2000003860.*
- IV. Que ambas partes están interesadas en que MS utilice los Residuos que le entregue AMG para el tratamiento de estabilización in-situ y eliminación final en el propio Vertedero de los lodos de EDAR que se encuentran almacenados en dicha instalación. La corta distancia entre la planta siderúrgica de AMG en Olaberria y el Vertedero del MS, de tan solo 2,8 km (5 min), hace viable la colaboración entre ambas partes.*
- V. Que la utilización de los Residuos para el fin indicado en el punto expositivo IV constituye una forma de valorización de los mismos, toda vez que se evita la extracción, preparación y transporte de materia primas cementantes tales como la cal, que es un término que designa todas las formas físicas en las que puede aparecer el óxido de calcio y que se obtiene como resultado de la calcinación de las rocas calizas o dolomías.*

## **2.- OBLIGACIONES DE LAS PARTES**

### **2.1. OBLIGACIONES DE AMG:**

- AMG se compromete a entregar a MS en el Vertedero la escoria negra generada en su Planta de Olaberria con la documentación necesaria exigida por la ley aplicable.*
- AMG se compromete a correr con los gastos de transporte de escoria negra hasta la entrega a MS en el Vertedero.*
- AMG se compromete a cargar en su Planta de Olaberria la escoria blanca en los vehículos de transporte contratados por MS.*
- AMG se compromete a entregar en el Vertedero y correr con los gastos de transporte de escoria blanca procedente de otras plantas del Grupo ArcelorMittal, en el caso de que fuese necesario.*
- AMG se compromete a correr con los gastos de los trabajos de estabilización de lodos de EDAR almacenados en el Vertedero abonando a la empresa especializada encargada de llevarlas a cabo hasta un máximo de 3,61 €/ton (IVA no incluido) de escoria blanca/negra entregada. Dichos trabajos de estabilización consistirán exclusivamente en:*

- 1º. La extracción de los lodos almacenados en balsas y su depósito en una balsa controlada de aproximadamente 400 m<sup>3</sup> de capacidad.
- 2º. La mezcla de la escoria blanca con los lodos en la proporción conveniente.
- 3º. La extracción y extendido de la mezcla estabilizada para su oreo.
- 4º. La cubrición final de la mezcla estabilizada con una capa de escoria negra.

- AMG designa en el presente Convenio a su Responsable de Medioambiente, D. ALVARO PLAZA REINA, para que lleve a cabo todas las tareas de seguimiento y control de cumplimiento del presente Convenio.

## 2.2. OBLIGACIONES DE MS:

**2.2.1.-** MS se compromete a recepcionar y gestionar en el Vertedero los Residuos que le envíe AMG y a emitir, así como a entregar a AMG, toda la documentación exigida por las leyes aplicables. Una vez entregado el Residuo, MS será el pleno responsable del mismo.

**2.2.2.-** Al tratarse de un Convenio de Colaboración, no existe ninguna contraprestación económica entre las partes. No obstante, la ejecución del mismo conlleva para MS los siguientes gastos:

- MS se compromete a correr con los gastos de transporte de escoria blanca desde la Planta de Olaberria hasta el Vertedero.

Por todo ello, los intervinientes suscriben el presente Convenio de Colaboración que someten a las siguientes

## ESTIPULACIONES

### 1.- OBJETO:

- El objeto del presente convenio es la colaboración público-privada (CPP) o Public Private Partnership para la aceptación y gestión por parte de MS en el Vertedero de los Residuos generados por AMG como consecuencia de su proceso siderúrgico y su utilización para la estabilización in-situ y eliminación final en el propio Vertedero de MS de los lodos de EDAR que se encuentran almacenados en dicha instalación, que se estiman en 15.000 toneladas aproximadamente.
- Esta colaboración público-privada consiste en la entrega por parte de AMG a MS, y la aceptación por parte de MS, de aproximadamente 108.000 toneladas de escoria negra y 30.000 toneladas de escoria blanca durante un plazo estimado de doce (12) meses. En cualquier caso, las Partes declaran que estas cantidades no son unas obligaciones mínimas de entrega y que las mismas están sujetas a cambios según lo estimen conveniente de manera unilateral o por mutuo acuerdo.
- MS se compromete a llevar a cabo y correr con los gastos de redacción del



*Proyecto de estabilización de los lodos, Dirección Facultativa de los trabajos de estabilización, Coordinación de la Seguridad y Salud, y control geotécnico.*

- *MS se compromete a llevar a cabo y correr con el resto de gastos que pudieran surgir en el Vertedero que puedan tener relación con trabajos de estabilización de lodos (drenajes de lixiviados, captación de gases, etc.).*

**2.2.3.-** *MS designa en el presente Convenio a su Técnico de Medio Ambiente, D. ENRIKE ENPARANTZA ORMAZABAL, para que lleve a cabo todas las tareas de seguimiento y control de cumplimiento del presente Convenio.*

### **3.- PESAJE DE RESIDUOS:**

- *Cada camión que transporte los Residuos se pesará vacío (a la entrada) y cargado (a la salida) sobre una báscula de AMG.*
- *Sólo el billete de pesaje establecido en la báscula de AMG será el peso reconocido para la preparación de la documentación correspondiente.*

### **4.- ESTABILIZACION DE LODOS:**

- *CONSTRUCCIONES ITURRIOZ S.A., será la empresa encargada de realizar los trabajos de estabilización de lodos descritos en el epígrafe 2.1.*

*La razón de ello es que esta empresa realizó a través de GHK, S.A.U. una experiencia piloto de estabilización de lodos de EDAR almacenados en el Vertedero mediante el empleo de cal micronizada entre mayo y julio de 2015. Con posterioridad, entre diciembre de 2015 y abril de 2016, ha realizado a través de MS una prueba piloto de estabilización de lodos mediante el empleo de escoria blanca siderúrgica. Además de experiencia, esta empresa posee una máquina ALLU PM Power Mixer 300 en propiedad, de fabricación finlandesa, específica e imprescindible para efectuar la estabilización de lodos mediante inyección y mezcla de material estabilizante.*

### **5.- CALENDARIO DE ENTREGA DE RESIDUOS:**

- *Las partes acordarán un calendario de entrega de residuos a la empresa responsable del proceso de estabilización que se ajuste a las necesidades de ésta y de las Partes.*

### **6.- DURACIÓN DEL CONVENIO:**

- *El presente convenio surtirá efectos desde el 1 de mayo de 2016 y tiene una duración de doce (12) meses. No obstante, ambas Partes podrán acordar expresamente una extensión del mismo en los siguientes casos:*
  - *Retrasos en el proceso estabilización como consecuencia de la climatología adversa, paradas programadas en la instalación siderúrgica que conlleven un menor ritmo en el suministro de escoria blanca o/y negra, etc.*

- La presencia de una cantidad de lodos a estabilizar diferente de la inicialmente prevista (15.000 toneladas).
  - Cuando así lo acuerden las Partes.
- Asimismo, cada una de las Partes podrá dar por finalizado el presente Convenio, de forma unilateral, con un preaviso de 1 mes, sin que ello genere ninguna responsabilidad para la parte que ejercita la opción de salida del Convenio.

## 7.- CONFIDENCIALIDAD

Las Partes acuerdan que mantendrán la confidencialidad respecto a todos los términos, datos, intercambios de información realizados en el marco del presente Convenio de Colaboración durante la vigencia del mismo y hasta 5 años después de su terminación.

Y en prueba de conformidad, se firma el presente documento en dos ejemplares originales, en Olaberria en la fecha indicada en el encabezamiento.

**6.- INFORMAZIOA.** Lehendakariak egindako kontratazioei buruzko informazioa:

- Beasaingo Sasieta zabortegian kaiok eta beste hegazti batzuk kontrolatzeko zerbitzua.

Ezagutzera eman da 5/2016 zenbakia duen Ebazpena, hau da:

“**Lehenik.** Beasaingo Sasieta zabortegian kaiok eta beste hegazti batzuk kontrolatzeko zerbitzua, LOCUS AVIS, S.L.U.ri esleitzea, baldintza plegua eta berak aurkeztutako proposamenaren arabera.

**Bigarren.** Kontratuaren prezioa, BERROGEITA HAMAIRU MILA BEDERATZIEHUN EURO (53.900,00 €) urteko, BEZ kanpo izango da. Kontratuaren prezioa ez da berrikusiko.

**Hirugarren.** Egikaritze epea, URTE BETEKOA izango da, kontratua formalizatu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. kontratua urte betez luzatzeko aukera izango da.

**Laugarren.** Ebazpen hau lizitatzaille guztiei jakinaraztea, aldi berean kontratatzailearen profilean argitaratzea eta adjudikaziodunari jakinarazpen hau jaso eta hamabost (15) laneguneko epean kontratu administratiboa gauzatzeko duen obligazioa gogoraraztea.”

- Poltsa konpostagarrien hornidura.

Ezagutzera eman da 8/2016 zenbakia duen Ebazpena, hau da:

“**Lehenik.** Etxebizitzetara zuzendutako poltsa konpostagarrien hornidura egiteko kontratua (1. Zatia) PAPELES EL CARMEN, S.A.ri esleitzea eta dendetara zuzendutako poltsa konpostagarrien hornidura egiteko kontratua (2. Zatia) PLASTICOS

ROMERO, S.A.ri esleitzea, baldintza plegua eta berak aurkeztutako proposamenaren arabera.

**Bigarren.** 1. Zatiari dagokion hornidura-unitateen prezioa, BEZik gabe, honako hau da: 0,0460 €/poltsa konpostagarri bakoitzeko. 2. Zatiari dagokion hornidura-unitateen prezioa, BEZik gabe, honako hau da: 0,1370 €/poltsa konpostagarri bakoitzeko.

**Hirugarren.** Egikaritze epea, URTE BETEKOA izango da, kontratua formalizatu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Eskari bakoitza emateko epea hau izango da: HILABETE BAT. Dagokion jakinarazpena jaso eta hurrengo egun baliodontetik hasita kontatuko da epe hori.

**Laugarren.** Ebazpen hau lizitatuile guztiei jakinaraztea, aldi berean kontratatzailearen profileen argitaratzea eta adjudikaziodunari jakinarazpen hau jaso eta hamabost (15) laneguneko epean kontratu administratiboa gauzatzeko duen obligazioa gogoraraztea.”

**7.- INFORMAZIOA.** Lehendakariak duela gutxi onartutako kontratazio-espeditari buruzko informazioa: errefusarentzako alboko kargako 150 edukiontzien hornidura.

Ezagutzera eman da 9/2016 zenbakia duen Ebazpena, hau da:

***“Lehena.-*** Errefusarentzako alboko kargako 150 edukiontzien hornidura jardunbide ireki bidez kontratatzeke espeditaria, 136.360,00 €-ko gastua (BEZik gabe) eta aipatutako kontratua araupetzeko Klausula Administratibo eta Teknikoen Pleguak onartzea.

***Bigarrena.-*** Esleipena egiteko jardunbideari hasiera ematea.”

Mikel Serrano, Zumarragako ordezkariak galdetu du ea Zumarraga eta Urretxuko sentsibilizazio kanpaina noiz egingo den.

Iñaki Erauskin zerbitzu buruak ezagutzera eman du, aste honetan bidaliko dela planifikazioa. Udal bakoitzari datu batzuk eskatuko zaizkie eta Udal bakoitzak koordinatzaile bat izan behar duela dio. Orain bi pertsona daude heziketa egiteko eta Zumarraga eta Urretxutik pasako dira lan hori egitera. Edukiontziak zonaka jarriko dira, bi pertsonentzat lan izugarria delako.

Mikel Serrano, Zumarragako ordezkariak esan du prest daudela pertsona bat kontratatzeke gai horretarako.

**8.- INFORMAZIOA.** Sasieta Mankomunitateari zigor-espeditaria irekitzeari buruzko informazioa, 2014-06-26an Sasieta zabortegira egindako ikuskapenaren ondorioz 16/2002 Legearen ustezko arau-hauste bat dela eta.

Ezagutzera eman, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak Sasieta Mankomunitateari espediente zigortzailea ireki diola, 2014an zabortegia guztiz impermeabilizatu gabe zegoelako eta nahiz eta Ingurumen Sailak jakin hori egiteko jarritako baldintzak ezin zirela bete eta Mankomunitateak zabortegia ixtea erabaki zuela eta itxita dagoela, espedientearekin aurrera jarraitzen dute, 20.000-200.000 € bitarteko isuna etor daitekeelarik. Alegazioak aurkezteko aukera erabili zen alegazioak jarriz eta frogak proposatzeko aukera ere erabili da. Orain instrukzio fasean dago eta fase honen emaitza zein den jakitearen baitan.

Lehendakariak esan du saiakera egingo duela, espediente zigortzailea bertan behera uzteko eta horren ondorioz, isuna erretiratzeko.

## **9.- LEHENDAKARITZAREN EBAZPENEI BURUZKO INFORMAZIOA.** 01/2016tik 09/2016ra.

Ezagutzera eman dira aipatutako Ebazpenak, hots:

<b>2016EKO PRESIDENTEAREN EBAZPENAK</b>		
<b>RESOLUCIONES DEL PRESIDENTE 2016</b>		
<b>Zkia. / Nº</b>	<b>Data / Fecha</b>	<b>Kontzeptua / Concepto</b>
1/2016	26/01/2016	Sasieta zabortegian kaiok eta beste hegazti batzuk kontrolatzeko zerbitzua kontratatzeko espediente onartzea
2/2016	16/03/2016	Poltsa konpostagarrien hornidura kontratatzeko espediente onartzea
3/2016	31/03/2016	2015eko mankomunitateko aurrekontuaren likidazio onartzea
4/2016	07/04/2016	Sasieta zabortegian kaiok eta beste hegazti batzuk kontrolatzeko zerbitzua emateko LOCUS AVIS, S.L.U. ren aldeko esleipen-proposamena onartzea
5/2016	14/04/2016	Sasieta zabortegian kaiok eta beste hegazti batzuk kontrolatzeko zerbitzuaren esleipena
6/2016	27/04/2016	Sasieta zabortegia zigitatzeko 2a faseari dagozkion obren exekuzioa kontratatzeko espediente onartzea
7/2016	27/04/2016	Poltsa konpostagarrien hornidura egiteko PAPELES EL CARMEN, S.A. ren (1. zatia) eta PLASTICOS ROMERO, S.A. ren (2. zatia) aldeko esleipen-proposamena onartzea
8/2016	06/05/2016	Poltsa konpostagarrien hornidura egiteko esleipena
9/2016	06/05/2016	Errefusarentzako alboko kargako 150 edukiontzien hornidura a kontratatzeko espediente onartzea

## **10.- ESKAERA ETA GALDERAK**

Eskaera eta galderen atalean honelakoak aipatu dira:

Iñaki zerbitzuburuak adierazi du aurten, lehen bost hilabetetan onartutako obligazioa onartutako eskubideak baino altuagoak direla iaz ez bezala 2016ko aurrekontuaren exekuzioan oreka mantentzen dela.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zazpiak eta laurdenetan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.